

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko martxoaren 7an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

**HERNANIKO UDALAREN ETA GOIZ EGUZKI ERRETIRATUEN ELKARTEAREN ARTEKO
DIRULAGUNTZA HITZARMENA, PERTSONA HELDUENTZAT OSASUN ETA ONGIZATE
JARDUERAK ANTOLATZEKO 2024KO 1. ORDAINKETA**

Alkatearen 2023/521 dekretuaren bidez, Goiz Eguzki Erretiratuen elkarteari dirulaguntza ematea onartu zen, pertsona helduentzat osasun eta ongizate jarduerak antolatzeko. 2023-2024-2025 eta 2026 urteetarako.

Dirulaguntza horretan jasota dago diru laguntza bi zatitan egingo dela:

- Dirulaguntzaren %60 (9.000 euro) aurrerapen gisa ordainduko da, hitzarmenaren onarpenarekin batera.
- Dirulaguntzaren %40 (6.000 euro) diruz lagundutako gastuen justifikazioa aurkeztean ordainduko da, Alkatearen edo eskuordetza duen pertsonaren ebazpen bidez.

Hurrengo urteetan (2024-2025-2026), urte horretan egin beharreko jardueren memoria aurkezten denean egingo da lehen ordainketa.

Goiz Eguzki Erretiratuen elkartearen ordezkariak, 2024ko otsailaren 7an aurkeztutako eskabidearen bidez, 2023. urtean jarduerak antolatzeko emandako dirulaguntzaren gastuak justifikatzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu zuen.

Kontuan hartu da Herriarrentzako Zerbitzuen Batzordeak 2024ko martxoaren 7an aho batez emandako irizpena

Horiek horrela **Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez onartzen du**

- 1- Goiz Eguzki Erretiratuen elkarteari 2024. urteari dagokion dirulaguntzaren lehengo zatia ordaintzea (% 60: 9.000 euro) udal aurrekontuaren partida honen kargura: 02.481.02.231.05
- 2- Erabaki honen berri ematea Goiz Eguzki Erretiratuen elkarteari eta kontu-hartzailetza sailari.

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluaekin bat etorriz

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Hernanin 2024ko martxoaren 7a

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa

Hernaniko udal-Idazkaria

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hzh@hernani.eus



EKS | CSV: ESKU196b1e9a-2ad8-4533-b6ce-ac5f7d01b042

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>